

# Julían Pacomio

*Apocalipsis entre amigos o el día simplemente*

## KOMISARIO BERRIAK 2021 · Javier Arbizu

---

### ZUZENKO EKINTZA

Bada bukatzen den gau bat, bada goizalde bat. Kaleek zikin egongo dira oraindik, tabernak itxita, plazak hutsik. Zu honaino iritsia zara, tenplu sendo honetara, eta barruan gu gaude, eguneko jendea. Hau da gure lekua, azalera izugarri hau, ezin iritsizko sabaia, horma sendoak, harri hotza. Baina badira korridoreak, ondoko aretoak, bainugelak, eta kanpoalde bat ere bai, atsedenerako leku bat, zeinetatik zerua ikusten den, ilun eta argiturik.

Ordu larriak igaro dira, goizeko 3:00etatik 5:00etara arteko denbora linbiko hori, zeinean modu ulertezinean jende asko hiltzen den eta jende asko jaiotzen den; beste ordu-tarte batzuetan baino askoz gehiago. Bizirik iraun dugu, eta zorionez oraindik ez dago hurbil eguerdia, ordu geldia hori, itzalik eta airerik gabea, zeinean deabruak, itsaslaminak eta infernuko beste izaki batzuk ezustean agertzen diren, eguzki zenitalaren distira eta galdetan suntsitzeko <sup>(1)</sup>. Bada gorputz nekatu bat, edo bat baino gehiago. Badira agian gorputz akitu batzuk. Baina edozein gorputz mugitu daiteke berriz hil ez bada. Gorputz akituak, lokartua eta geldia, gorputz euforiko bihurtu daiteke, desiratzen duen gorputz, dar-dar, txortan eta dantzari egin, eta berriz akitzen dena.

Beharbada zirkulu bat eta su bat egongo ziren. Beharbada festa bat egon zen eta beharbada amaitua da, baina hemen oraindik bada zer ospatu, ospatzen den zerbait. Amaiera baten festa da edo, beharbada, festa baten amaiera.

Agian apokalipsi bat egongo da. Baliteke abenduko solstizio bat izatea, edo munduaren amaiera gaurko gauaren ondoren, edo erabateko iluntasuna eguerdi betean, edo ehun urteko gosete bat, edo konputagailu guztien aldi bereko kolapsoa, algoritmo guztiena, edo argiaren abiadura aurrera egiten duen zerbait gu zain gauden leku honen kontra.

Bada zalantza bat, galdera bat, nola egon elkarrekin, nola iraun hemen denok, elkartuta eta elkarrengandik urrun. Bada gerora sortutako adiskidetasuna, ezezagunarena, bereizitako gorputzena. Lagunak izan gitezke, hitz egin gabe, elkar ukitu gabe. Bat-batean lotura bat ezarri, bat-batekoa eta iraunkorra, zu ere honaino iritsi zarelako eta zerbait espero duzulako, guk bezala; eta baliteke zerbait hori amaiera moduko zerbait izatea, edo heriotza, edo jauzi bat, hau da, desagertzen ari den munduaren azken segundoaren edertasun erabatekoa.

Jauzia egina naiz nigandik egunsentira. Gorputza utzia naiz argiaren alboan. Eta kantatua naiz jaio denaren tristezia <sup>(2)</sup>. Eta jauzi hori da, halaber, gaua baino ezer argitsuagorik eta aldi berean tristeagorik ez dagoelako ideia, gauean ez baita ezer ikusten, dena iluna baita <sup>(3)</sup>. Baina pitzadura bat dago denetan, eta horrela sartzen da argia <sup>(4)</sup>. Gorputzean ere badira poroak, zauriak, zuloak, eta pitzadura horietatik sartzen da oldarka argia <sup>(5)</sup> eta barneratzen zaigu.

Gaua amaitu da; goizaldea ere amaitu da. Zuk, honaino iritsi zarenez, badakizu: denok egiten dugu aurrera apokalipsi baterantz, gurea bada ere. Baina orain eguzkia dator, eta badator eguna, besterik gabe.

Alexandra Laudo

### ACCIÓN EN VIVO

Hay una noche que termina, hay una madrugada. Las calles deben estar aún sucias, los bares cerrados, las plazas vacías. Tú has llegado hasta aquí, a este templo robusto, y dentro estamos nosotros, la gente del día. Este es nuestro lugar, esta inmensa superficie, un techo inalcanzable, las paredes recias, la piedra fría. Pero hay también corredores, salas anexas, baños; y también un afuera, un lugar para el descanso desde el que se ve el cielo, oscuro e iluminado.

Han pasado las horas críticas, ese tiempo límbico entre las 3 h y las 5 h de la mañana en el que de manera inexplicable hay mucha gente que muere y mucha gente que nace; mucha más que en otras franjas horarias. Hemos sobrevivido, y por suerte aún no está cercano el mediodía, esa hora inmóvil, sin sombra ni aire, en la que sobrevienen los demonios, las sirenas y otros seres infernales para asolarnos en el brillo y el ardor del sol cenital <sup>(1)</sup>. Hay un cuerpo cansado, o más de uno. Hay quizás unos cuantos cuerpos exhaustos. Pero cualquier cuerpo puede volver a agitarse si no ha muerto. El cuerpo agotado, adormecido y quieto, puede devenir un cuerpo eufórico, un cuerpo deseante, que tiembla, que folla, que baila y se agota de nuevo.

Puede que hubiera un círculo y un fuego. Tal vez hubo una fiesta y tal vez haya acabado, pero aquí hay aún algo que festejar, algo que se celebra. Es la fiesta de un fin o, quizás, un final de fiesta.

Habrà, tal vez, un apocalipsis. Puede que sea un solsticio de diciembre, o el fin del mundo tras esta noche, o la oscuridad total en pleno mediodía, o una hambruna de cien años, o el colapso simultáneo de todas las computadoras, de todos los algoritmos, o algo que avanza a la velocidad de la luz contra este mismo lugar en el que nosotros esperamos.

Hay una duda, una pregunta sobre cómo estar juntos, cómo permanecer aquí todos, unidos y distanciados. Hay la amistad sobrevinida, la del desconocido, la de los cuerpos separados. Podríamos ser amigos, sin hablar, sin tocarnos. Establecer de pronto un vínculo, súbito y permanente, por el simple hecho de que tú también has llegado hasta aquí, y esperas algo, como nosotros; y puede que ese algo sea una especie de fin, o sea la muerte, o sea un salto, o sea la absoluta belleza del último segundo del mundo desvaneciéndose.

He dado el salto de mi alma al alba. He dejado mi cuerpo junto a la luz y he cantado la tristeza de lo que nace <sup>(2)</sup>. Y ese salto es también la idea de que nada hay más luminoso y simultáneamente triste que la noche, en la que nada se ve, en la que todo es oscuro <sup>(3)</sup>. Aunque hay una grieta en todo, y es así como entra la luz <sup>(4)</sup>. Incluso en el cuerpo hay poros, heridas, orificios, y es por estas grietas por las que la luz irrumpe <sup>(5)</sup> y nos penetra.

Se ha acabado la noche; incluso la madrugada ha terminado. Tú, que has llegado hasta aquí, lo sabes: todos avanzamos hacia un apocalipsis, aunque sea el nuestro. Pero ahora sale el sol, y el día llega, simplemente.

Alexandra Laudo

---

<sup>1</sup> F. Solmsen, Beitr. zur griechischen Wortfortschung, 1, Strasburgo, 1909, 125 or. eta hurrengoak; aipatua in R. Caillois, Los demonios del mediodía, Madril: Siruela, 2020, 75. or.

<sup>2</sup> A. Pizarnik, Árbol de Diana, 1. poema, aipatua in A. Fernández Mallo, La mirada imposible, WunderKammer: Girona, 2021, 25. or.

<sup>3</sup> A. Fernández Mallo, La mirada imposible, WunderKammer: Girona, 2021, 25. or.

<sup>4</sup> "There is a crack, a crack in everything / That's how the light gets in". L. Cohen. (1992), Anthem, in The Future, 1992, [CD], Columbia Records: New York.

<sup>5</sup> "(...) ensanchando la herida por donde irrumpe la luz. La luz que revela y forma lo que aún no dio la cara, el misterio de las cosas". M. Zambrano, Algunos lugares de la pintura, Acanto Espasa Calpe: Madril, 1991, 205. or.

<sup>1</sup> F. Solmsen, Beitr. zur griechischen Wortfortschung, 1, Strasburgo, 1909, pp.125 y sig.; citado en R. Caillois, Los demonios del mediodía, pp. 75, Madrid: Siruela, 2020, p. 75.

<sup>2</sup> A. Pizarnik, Árbol de Diana, poema 1, citado en A. Fernández Mallo, La mirada imposible, WunderKammer: Girona, 2021, p. 25

<sup>3</sup> A. Fernández Mallo, La mirada imposible, WunderKammer: Girona, 2021, p. 25

<sup>4</sup> "There is a crack, a crack in everything / That's how the light gets in". L. Cohen. (1992), Anthem, en The Future, 1992, [CD], Columbia Records: Nueva York.

<sup>5</sup> "(...) ensanchando la herida por donde irrumpe la luz. La luz que revela y forma lo que aún no dio la cara, el misterio de las cosas". M. Zambrano, Algunos lugares de la pintura, Acanto Espasa Calpe: Madrid, 1991, p. 205.

**Sorkuntza:** Julián Pacomio

**Performerrak:** Sara Vieira Marques, Marina Dubia, Víctor Colmenero Mir, Nina Botkay, Ángela Millano, Luis Moreno Zamorano eta Matilde Amigo.

**Argiak:** Santiago Rodríguez Tricot.

**Soinua:** Borja Caro.

**Irudi grafikoa:** Blanca G. Terán.

**Akopainamendua:** Alexandra Laudo.

**Esker onak:** Alina Ruiz Folini, Iván Haidar, Daniel Pizamiglio, Ignacio de Antonio Antón, Leire Aranberri, Carolina Campos, Luz Broto, Óscar Dasí, Núria Gómez Gabriel, Adaline Anobile, João Dos Santos Martins eta Alicia Carrera.

**Laguntzak:** Barcelona Producció. La Capella. Acció en viu. Sorkuntzako egonaldia. Graner. Dantza eta Zuzeneko Arteen Zentroa. Bartzelona. Extremadurako Artista Bisualentzako laguntzak. Ekoizpena. O Rumo do Fumo. Sorkuntzako egonaldia. Lisboa. PACAP #4. Forum Dança. Sorkuntzako egonaldia. Lisboa. ARAR. La Caldera. Bartzelona.

**Creación:** Julián Pacomio

**Performers:** Sara Vieira Marques, Marina Dubia, Víctor Colmenero Mir, Nina Botkay, Ángela Millano, Luis Moreno Zamorano y Matilde Amigo.

**Iluminación:** Santiago Rodríguez Tricot.

**Sonido:** Borja Caro.

**Imagen gráfica:** Blanca G. Terán.

**Acompañamiento:** Alexandra Laudo.

**Agradecimientos:** Alina Ruiz Folini, Iván Haidar, Daniel Pizamiglio, Ignacio de Antonio Antón, Leire Aranberri, Carolina Campos, Luz Broto, Óscar Dasí, Núria Gómez Gabriel, Adaline Anobile, João Dos Santos Martins y Alicia Carrera.

**Apoyos:** Barcelona Producció. La Capella. Acció en viu. Residencia de creación. Graner. Centro de Danza y Artes Vivas. Barcelona. Ayudas a Artistas Visuales de Extremadura. Producción. O Rumo do Fumo. Residencia de creación. Lisboa. PACAP #4. Forum Dança. Residencia de creación. Lisboa. ARAR. La Caldera. Barcelona.

Julián Pacomiok *Apocalipsis entre amigos o el día simplemente* aurkezten du, Javier Arbizuk komisariatutako *Talud mediodía* proiektuaren barruan, zeina Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Politika Sailak Azkuna Zentroarekin (Bilbo), Artiumekin (Gasteiz) eta Tabakalerarekin (Donostia) elkarlanean duen Komisario Berriak programan garatu den.

Julián Pacomio presenta *Apocalipsis entre amigos o el día simplemente*, como parte del proyecto *Talud mediodía* comisariado por Javier Arbizu y desarrollado en el marco de Komisario Berriak, programa de colaboración del Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco con Azkuna Zentroa (Bilbao), Artium (Vitoria) y Tabakalera (San Sebastián).